

EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2019



**Bilbao**

**Az**  
Azkuna Zentroa  
AlhóndigaBilbao

# Cellule D'intervention Metamkine + Garazi Gorostiaga



Fotografia: Marine Lahax

Hurbileko eta nazioarteko artisten soinu-lana ezagutzera emateko antolatatu den musika esperimentalako egitarauaren barruan, Frantziako [Cellule D'intervention Metamkine](#) taldearen lana aurkeztuko dugu, 1987az geroztik zuzeneko irudiaren eta soinuaren iraultzaileak. Horiekin batera, [Garazi Gorostiaga](#) euskal artista ere izango da: Euskal Herriko musika esperimentalaren alorreko azken errebelazioetako bat da.

[Cellule D'intervention Metamkine](#) taldearen barruan, Christophe Auger eta Xavier Quérel zinemagileek eta Jérôme Noetinger musikariak irudiaren eta soinuaren arteko harremana ikertzen dute.

### Ispiluen magia, askotariko proiektoreak eta edizio irudimentsuak zuzenean erabilia, Metamkinek 'pelikula' berri bana ekoizten eta zuzentzen du bere emanaldi bakoitzean.

Kontakizun jakin baten gainean lan eginez, bat-bateko bineta-zurrunbiloak isurtzen ditu, unean bertan zinta magnetikoko zatiak maneiaturak eta sintetizagailu-soinuen bidez soinu-banda bat eraikiz. Elkarrekin hamar urtez lanean aritu diren hiru kolaboratzaile hauek irudiaren eta soinu-bandaren mugak bultzatzea lortu dute zuzeneko aurkezpenaren arloan: erabat emankizun bakarra da.

[Garazi Gorostiaga](#) musika elektronikoa, ordenagailuetan, sintetizadoreetan eta MIDIa bezalako hizkuntzetan aurkitzen du bere bizipenak, ideiak eta emozioak ezagutzeko, adierazteko eta gauzatzeko gaitasuna, eta esperimentatu egiten du haiekin. Urte askoan musika sortzen ibili izan den arren, 2016az geroztik aurkeztu izan du bere zuzeneko musika jendearen aurrean, soinu eta estilo hauetara bideratuta: ambient, drone, industrial eta, batik batik, muturreko testurak.

Hitza iristen ez den iruditeria da. Eustea eta hedatzea, kaosa eta ordena, sosegua eta indarkeria. Dena zalantzan geratzen da, izaten uztea da kontua, bidaia kosmiko mamitsu eta oniriko batean, non identitateak eta bitasunak berezko zentzua guztiz galtzen duten.

### «Iraultzailea da sormenak mundua salbatuko duela dioen ideia». [Garazi Gorostiaga](#)



**Urtarrilak 9, asteazkena**

19:00

Lantegia 2

8€ / 6€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Infopuntua eta  
[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)



#### FITXA ARTISTIKOA

**Cellule d'Intervention  
Metamkine (Francia)**

Jérôme Noetinger,  
electroacoustic devices.

Christophe Auger, projectors  
16mm.

Xavier Quérel, projectors  
16mm.

**Garazi Gorostiaga (Euskadi)**



Cellule d'Intervention  
Metamkine

 [www.etamkine.free.fr](http://www.etamkine.free.fr)

Garazi Gorostiaga

 [www.garazigorostiaga.wixsite.com/  
disgrace](http://www.garazigorostiaga.wixsite.com/disgrace)

 [@garazigorostiaga](https://www.facebook.com/garazigorostiaga)